



ESKURIK ESKU BERDINTASUNERAKO LASTERKETAN

Domekan Lilakrosa egingo dute Durangoko kaleetan, eta Oihana Urrazak, Izaro Rementeriak eta Isabel Iraurgik bertan parte hartuko dute. Berdintasun-arrakala desberdinak bizi dituzte hirurek, baina ahizpatasuna ardatz hartuta korrika egingo dute, elkarregaz. / 2-3

Oihana Urraza, Izaro Rementeria eta Isabel Iraurgi Lilakroseko lekukoa eskutan.

Lan heriotza salatu dute Elorrion

Joan zen martitzenean, 38 urteko behargin bat lan istripuan hil zen Betsaide enpresan. Heriotza salatzeke, hainbat mobilizazio egin dute herrian. / 6



ANBOTOk antolaturiko inauterietako argazki lehiaketa bozketa fasean sartu da / 12



HILEKO ZOZKETAK / 10



SCHMIDT
SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK

Martxoaren 1etik 31ra
DESKONTU MUNDIALAK
ZURE SUKALDEKO ALTZARIETAN

www.homedesign.schmidt



Oihana Urza, Izaro Rementeria eta Isabel Iraurgi, Lilakroseko lekukoa eskuan.

"Jo eta ke segitu behar dugu berdintasuna sustatzen"

OIHANA URRAZA, IZARO REMENTERIA ETA ISABEL IRAURGI LILAKROSA

Domeka honetan, martxoak 9, Lilakrosa egingo dute Durangoko kaleetan. Aurtengo edizioan baturiko dirua bularreko minbiziaren aurkako ikerketarako erabiliko dute

Ekaitz Herrera LILAKROSA

Durangoko elkarteek eta herri-tarrek, emakumeak buru, berdintasunaren aldeko korrikaldi erraldoian parte hartuko dute domeka honetan: Lilakrosa. Lekukoa eskurik esku pasatu eta askotariko mezuak aldarrikatuko dituzte kalerik kale. Minbiziaren Aurkako Elkarteko Oihana Urzak, Durango Rugby Taldeko Izaro Rementeriak eta Andereak elkarteko Isabel Iraurrik ere halantzik parte hartuko dute: ahizpatasunetik ahizpata-

sunera gizarte berdinzaleago baterako oinarriak josten. Bakoitzak bere arrakala eta bide propioak dituela diote, baina helburu bat eta bakarra dute: berdintasuna lortzea.

Hitzordurako prest?

Oihana Urza: Egia esanda, oso gogotsu. Minbiziaren Aurkako Elkarteko kideak aspaldidanik gabilta Lilakrosean parte hartzen, baina aurtengoa oraindino bereziagoa da. Izan ere, aurtengo baturiko dirua gure elkarteari emango zaio, bula-

rreko minbiziaren aurkako ikerketarako, hain zuzen ere.

Izaro Rementeria: Lilakrosean parte hartzea ederra da. Hainbeste emakume batera elkarlanean parte hartzen ikustea gauza handia da.

Oihana Urza: Martxoaren 8a Emakumeen Eguna dela ikusita, gure borroka kaleratzeko eta mezuak zabaltzeko modu bat da Lilakrosa. Izan ere, batzuetan Martxoaren 8a zer den ahaztu egiten zaigulakoan nago. Hainbat lorpen egin den arren, ber-

dintasuna urruti dago oraindino. Horregaitik, lanean jarraitu behar dugu.

Berdintasunerako bidean, zein da Lilakrosak egiten duen ekarpenik handiena?

I.R.: Hainbeste jende batzen dela ikusteak zeure buruari galderak egitera, hausnartzera, zaramatza. Hori onuragarria dela esango nuke. Gainera, horrek guzti horrek badu beste alde bat: hainbeste emakume helburu beraren alde batzuek indartsuago sentiarazten zaitu. **O.U.:** Iruditzen zait halako egitasmo jendetsuek mezuak eta aldarrikapenak zabaltzeko balio dutela. Guk, adibidez, emakumeen gaixotasunen trataeran ipiniko dugu fokua. Argi dugu emakumeek zientzian, ikerketan eta erabakiak hartzen diren egituretan egon behar dugula. Izan ere, zientzian edo ikerkuntzan lan egiten dutenen % 28 baino ez dira emakumeak mundu osoan.

I.I.: Bat nator ideia horregaz. Gizonezkoen gaixotasunak baino ez ditugu ezagutzen, hain zuzen ere, ikerketa guztiak gizonezkoekin egin izan direlako. Baina ez ditugu sintoma berdinak izaten, desberdintasun fisikoak ere baditugu. Horrenbestez, hor ere badugu zer landu. Arrakala bat dugu hor.

O.U.: Hala da, bai. Beste adibide bat ipiniko dut: sendagarriak emakumeengan frogatuta ez badaude, gero ondorioak egon daitezke. Begira zer gertatzen den bihotzekoekin. Eskumako besoan minen bat izatea bihotzeko baten seinale lez interpretatzen da medikuntzan. Baina seinale hori gizonengan gertatzen da, ez emakumeengan. Horrenbestez, bestelako ezaugarriak ikertzen ez baditugu, egoera larriak jasango ditugu. Horrenbestez, beharrezkoa da ikerketan, zientzian, genero ikuspegia txertatzea.

Gaixotasunek, gainera, beste arrakala bat ekartzen dute: zaintzarena.

O.U.: Hor ere badago zer azertu. Zelan egiten dira zaintzak? Gaixotasun bat dagoenean zaintza beharizan handitu egiten dira, eta gehienetan emakumeok hartzen dugu gure gain ardura hori. Baina lan horiek banatu egin behar dira.

I.I.: Adibide bat ipiniko dut. Onkologia mundua ezagutzeko, honako hau ikusi dut: gaixoa adineko emakumezkoa

"HAINBESTE EMAKUME HELBURU BERAREN ALDE BATZUEK INDARTU EGITEN ZAITU"

"HAU DENON LANA DA, EZ ELKARTEENA EDO ERAGILE FEMINISTENA BAKARRIK"

bada, alaba izango du ondoan laguntzen. Ostera, gaixoa gizonetzkoa bada, pazienteak emaztea, alaba eta semea ere izango ditu lagun. Adierazgarria dela deritzot.

Izaro, zu errugbilaria zara. Bizi izan duzu era horretako arrakalarik kirolean?

I.Z.: Errugbiko senior kategorian gizonak eta emakumeak gaude, baina izendapen desberdinak jasotzen ditugu taldearen arabera. Gizonezkoak *DRTko seniorrak* dira, eta gu geu ere seniorrak garen arren, ez dugu izendapen hori jasotzen. *DRTko neskak* gara. Hor ere badago halako arrakala bat. Bestalde, errugbian jokatzeko hasi nintzeanean, hainbat egoera bizi izan nuen. Gogoan dut hiru neska genbiltzala talde mistoan, eta partidu bat jokatzera joan gineanean ez zegoela guretzat aldagarik. Epailearen aldagelan dutxatu behar izan genuen, eta azkar egiteko eskatu ziguten, epailea ur berorik barik gertuko zelako bestela. Bilbon eta Donostian bizi izan ditut halakoak. Dena dela, urte batzuk joan dira ordutik eta aldagelen kontua hobetu egin da. Gero,

"GOGOAN DUT PARTIDU BATERA JOAN ETA EZ ZEGOELA ALDAGELARIK GURETZAT"

"% 28 BAINO EZ DIRA ZIENTZIAN EDO IKERKUNTZAN DABILTZAN EMAKUMEAK"

beste arrakala bat babesgarriena da. Lehen ez genuen bularrak babesteko tresnarik. Orain, bai, badira horretarako babesgarriak.

I.I.: Berdintasunari buruz gabilta berbetan, eta kontua da zulo pilo bat dagoela leku guztietan, arrakala mordoa. Baten batek esan dezake txikikeriak direla, baina ez dira gauza txikiak.

O.U.: Horixe da kontua. Segun eta zelan ikusten dugun mundua, halantxik jokatzin dugu. Horregaitik, jo eta ke segitu behar dugu berdintasuna sustatzen.

Hau guztion kontua da, gizarte osoari eragiten dio, eta gizonetako ere kontzientzia hartzen hasi behar dute, borroka honetan inplikaturik.

Zein beste arrakala iruditzen zaizue adierazgarri?

I.I.: Erreferenteak izatea ere inportantea da, ikusgarritasuna lantzea. Ni Andereak elkartearen nago, eta, besteak beste, emakumeen biografiak ikusarazteko lan egiten dut *Wikiemakumeak* proiektuan. Datu bat emango dizut: 2017an, emakumeen biografiak % 13,4 ziren Wikipedian. Momentu honetan,

presentzia hori % 32,6 izatera igaro da. Lan handia egin dugulakoan nago.

O.U.: Arlo guztietan behar ditugu erreferenteak: ikasketetan, literaturan, pelikuletan... arlo guztietan.

Bistakoa denez, Lilakrosean parte hartzeko arrazoi ugari dago. Zein mezu helaraziko zeniekete irakurleei? Zergaitik parte hartu beharko lukete domekako Lilakrosean?

I.I.: Azaldu dugunez, berdintasun arrakalak itzelak dira. Hau denon lana da, ez bakarrik talde batzuen, mugimendu feministaren. Ez, ez, hau denon lana da, emakumeena zein gizonena. Aurrera jarraitu behar dugu, eta tentuz, erne, lorturikoak zapaltzeko joerak ere ikusi daitezke eta. Batuta bagaude, ez gaituzte geldituko eta ez gaituzte zapalduko.



Ikusi bideoa

Bularreko minbizia ikertzeko laguntza

Lilakrosa 12:00etan hasiko da, Ezkurdin, eta herriko kaleak zeharkatu eta gero helduko da amaierara, Andra Marira. Hori baino lehenago, 11:30ean, lasterketako kamisetak erosteko aukera egongo da irteeran, lau euroan. Modu horretan, korrikalariak kausa solidario batean lagunduko dute, aurtengo edizioan baturiko dirua minbiziaren kontrako ikerketara bideratuko dute eta. Minbiziaren Aurkako Elkartearen arduratuko da zeregin horretaz. Elkarteko kide Oihana Urrazak azaldu duenez, bularreko minbiziaren aurkako ikerketa bat laguntzen dabilta diruz, eta Durangon baturikoak ikerketa horretarako erabiliko dituzte. "Bularreko minbiziak askoz ere gehiago eragiten die emakumeei. Iaz, adibidez, 3.374 bularreko minbizi kasu antzeman zituzten Bizkaian. Sendagarriak eta detekzio goiztiarrak egoera hobetzen lagundu dute, biziraupena handitu dute, baina ezin dugu ahaztu bularreko minbiziak



Lilakrosaren edizio bat.

aldaera asko dituela. Horregaitik, oso inportantea da medikamentu eta tratamendu bakoitza ondo zaintzea, eta horien beharrezko jarraipenak ikertzea", azaldu du Urrazak. Ikerketa horiei eskerrak, ospitaleetako arreta medikua zehatzagoa izango delakoan dago Urraza. Bestalde, minbiziaren ezaugarri medikoen gainera, minbiziaren duenari laguntzeko sarea ere goraitatu du Urrazak. "Gaixoentzat oso garrantzitsua da taldean egotea, pertsonekin

egotea, entzutea, arazoei era kolektiboan aurre egitea. Izan ere, minbizi diagnostiko baten atzean bide luzea dago, eta gure elkartearen laguntzaile boluntarioak ditugu gaixoei medikuarenera joaten edo ondoan egoten laguntzeko", azaldu du. Gainera, hori guzti hori maila politikoan mugitzeko ere lan egiten dute. Minbiziaren Aurkako Elkarteak 24 orduko telefono arreta zerbitzua eskaintzen du, 900 100 036 zenbakian.

"Egunero dugu emakumeon eskubideen alde egin beharreko zeozer"

Abadiñoko Udalak agenda osoa izango du Martxoaren 8ari begira; arreta berezia ipiniko du gazteengan

Abadiñoko Udalak jarduera interesgarriak antolatatu ditu Martxoaren 8aren barruan. Naiara Bildosola Berdintasun zinegotziak eta Eider Ajuria Gazteria zinegotziak jarduerai eta udalaren lan lerroei buruz berba egin dute. **Zertan ipiniko du udalak fokua martxoaren 8an?**

Naiara Bildosola: Antzezlanen bitartez, gai ugari jorratuko dugu M8ra begira. *Lotura basatiak* lanak ama-alaben arteko bizipenak kontatzen ditu, eta beldurra, kontrola, dependentzia... eta halako gaiak dakartzara oholtzara. 'Llamalo X' lanak arau heterosexuak, patriarkatuak emakumeen gorputzetan eragiten duen indarkeria, eta sexualitatearen inguruko aurreiritzi eta estigmak lantzen ditu.

Eider Ajuria: Autodefentsa feminista tailerra antolatuko dugu



Naiara Bildosola eta Eider Ajuria.

12tik 18 urtera bitarteko neska gazteentzat. Genero desberdintasunaren inguruan gogoeta egingo dute, baita patriarkatuak gure jendartearen dituen ondorioen inguruan ere. Tailerrak nesken jabeakuntza pertsonal zein kolektiboa bilatzen du, baita indarkeria matxistari aurre egiteko baliabide anitz bereganatzea ere. **Zein neurritan da garrantzitsua formakuntza feminista nerabezeroan eskaintzea?**

E.A.: Emakumeen eguneroko borroka aldarrikatzeko erabiltzen dugun eguna da M8a, baina eguneroko dugu emakumeon eskubideen alde egiteko zeozer. Gazteak dira gizarte justu eta berdintza leago bat lortzeko esperantza. Hezkuntzak pisu handia du eta udaletik bultzada bat eman behar diogu prozesu horri. Horretarako, urtean zehar egitasmo ugari

lantzen gabilta batzordeetatik. **Zer garrantzia du ikastetxeen parte-hartzeak gazte eta nerabeen artean sexualitateari eta indarkeria matxistari bako bizitzetara buruz berba egiteko?**

E.A.: Ezinbestekoa da hezkuntzak ume eta gazteekin dimentsio afektibo-sexuala koherentziaz lantzea, garapen integratzen bidean.

N.B.: *AbadiñoSex* proiektuaren ebaluaketa egin berrikan, ebaluaketa aztertu eta proiektua hobetzeko lanean gabilta, Abadiñoko hezkidetzaren proiektu integratzaile berrir martxan ipintzeko datorren ikasturtean. Horretarako, zentroen arteko Hezkidetzaren Mahaia ere martxan ipini gura dugu.

Zeintzuk dira hurrengo lan lerroak?

N.B.: III. Berdintasun planaren luzapena onartu berri dugu azken bilkuran. Horrez gainera, indar handia ipini dugu Jabeakuntza eskolak sendotzen. Durangaldeko emakumeen aurkako indarkeria kasuetan jarduteko eta koordinatzeko, II. Protokoloaren hobekuntzan lanean jarraitzea da gure konpromiso sendoa.

Indarkeria matxistaren biktimak behar den moduan artatzea eskatu dute

Durangoako ertzain etxean indarkeria matxistagaitiko kasuak "egoerak eskatzen duen moduan" artatzea eskatu dute udal ordezkariak, aho batez. Eusko Jaurlaritzari helarazi dizkiote eskariak, honek biktimak behar den moduan artatzen direla bermatu dezan



Durangoako udalbatzak adierazpena Eusko Jaurlaritzari helaraztearen alde egin zuen, aho batez.

Ekaitz Herrera DURANGO

Urtarrileko osoko bilkuran adostasunik izan ez zuen adierazpenak otsailekoan ikusi du argia. Durangoako udalbatzak lau puntuko adierazpena onartu zuen, aho batez oraingoan, udalerriko ertzain etxean indarkeria matxista jasan duten emakumeei behar

rezko arreta eskaintzea eta jarraipen zuzena egitea eskatzeko. Eskariok Eusko Jaurlaritzari helarazi dizkiote, honek biktimei beharrezko baliabideak eskaintzen zaizkiela bermatu dezan.

Zehatz esanda, Durangoako ordezkari politikoek honako puntu hauek jasozituzten adierazpenean:

bat: indarkeria matxistagaitiko kasuei jarraipena egiteaz arduratzen diren agenteen ordezkariak bermatzea, horiek bajaran baldin badaude. Bi: Durangoako ertzain etxean indarkeria matxistagaitiko kasuak beti egoerak eskatzen duen moduan artatzea eta kasu horiei jarraipen zuzena egitea. Hiru:

indarkeria matxistaren kontrako unitateagaz koordinatzea eta lankidetzan aritzea. Eta lau: erakundeen arteko lankidetzan handitzea, udaltzaingoagaz, udaleko arreta integral espezializatuko zerbitzuagaz eta Mankomunitateagaz.

Era berean, udal ordezkariak adierazi dute lehentasuntzat dutela indarkeria matxista jasaten duten emakumeei eta haien seme-alabei prebentzio politikak, programak eta arreta integrala ematen jarraitzea, baita erreparazioa eta erreparazioa bermatzea ere. Alde horretatik, beharrezkotzat jo zuten instituzioen arteko lankidetzak.

Durangoako udal ordezkarien adierazpena testuinguruan kokatzeko, aste batzuk egin behar da atzera. Izan ere, Durangon paseatzen zebilen emakume batek eraso jasan zuela jakinarazi zuen DAFAk, Durangoako Autodefentsa Feminista Asanbladak. "Gizon batek emakumeari dei egin zion, eta harengana hurbildu zenean, gizona masturbatzen hasi zen. Biktima ertzain etxera joan zen salaketa ipintzera, baina ez zuen halakorik lortu. DAFAk dioenez, "era honetako gertakariak ez direla delitutzat jotzen" erantzun zion Ertzaintzak emakumeari.

21 emakume Andraguneko unitatean

Durangoako Udalak indarkeria matxistaren kontrako unitateari buruzko datuak eman ditu. Zerbitzua iazko maiatzean jaino zen, indarkeria matxistaren prebentzioan, esku-hartzean eta erreparazioan lan egiteko. Jessica Ruiz Berdintasun zinegotziak jakinarazi duenez, 2024ko maiatzetik hona unitateak 21 emakume artatu ditu. Horietatik 13 zuzenean joan ziren Andragunera, eta 8 beste erakunde batzuetatik bideratu zituzten hara. Zerbitzuak arreta konfidentziala eskaintzen du doan, Andragunean, astelehen, eguazten eta barikuetan 8:50etik 15:10era, eta martitzen eta eguenetan 10:40tik 15:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Ruizek gaineratu duenez, zerbitzuak "biktimak babestea eta laguntzea" du helburu, baita indarkeria matxistagaitiko kasuen ondorengo esku-hartzeetan eta erreparazioan laguntzea ere.

Etxebizitzaren auzia berbagai Durangon, EH Bilduren eskariz

"Durangon geroago eta gaxagoa da etxebizitza eskuratzea; udal gobernua ez ditu bere konpromisoak bete", esan dute

Ekaitz Herrera DURANGO

Durangoako EH Bilduk ezohiko Lurralde Batzordean batzera deitu ditu udalbatzako kideak, "etxebizitza larrialdia" lantzeko helburuz. Horretarako, eskaria erregistratu dute Herritarrentzako Arreta Zentroan. Koalizio subiranistak honako asmo hau du: ordezkari politikoak Lurralde Batzordean batzea lehenengo, eta bilkura horretan etxebizitza larrialdiari aurre egiteko lantalde bat eratzea gero. Edozelan ere, lantalde horrek baldintza bat bete beharko du aurrera egin



EH Bilduko ordezkariak. EH BILDU

ahal izateko: batzordearen gehien-go ados egon beharko da lantalde hori eratzeagaz. Koalizioak beharrezkotzat jo du gaia lantzea, legegintzaldia hasi zenetik udal gobernuak arazoari heltzeko neurri eraginkorrik hartu ez duela iritzita: "Alkateak lantalde bat sortuko zuela iragarri zuen azaroan. Lau hilabete igaro dira eta oraindino ez da promesa hori gauzatu", azaldu du koalizioak.

EH Bilduk emandako datuen arabera, gaur egun 1.412 pertsona daude Etxebiden izena emanda, Durangon alokairua eskuratzen. Hala ere, alokairuko etxebizitzaren eskaintza "hutsaren hurrengo" dela dio koalizioak. Gaineratu dutenez, Durango da azken hiruhilekoan salmenta prezioen hazkunderik handiena izan duen udalerrria Autonomia Erkidegoan.

"Poza eta kezka" Durango txintxaunekin

E.H. DURANGO

Herriaren Eskubidea "pozik" agertu da Ibaizabalako txintxaunekin, eta Otamotzena eta San Fausto auzoetan ipintzekoak direnekin. Azaldu dutenez, proiektuok 2023koak dira, EH Bildugaz batera agintean zeudenekoak. Urte hartan, 800.000 euro gorde zituzten herriko sei gune txintxaunez hornitzeko eta udalerriko beste eremu orokor bat helburu bererako atontzeko. Alabaina, proiektuaren bilakaerak ez du Herriaren Eskubidea guztiz ase; "kezkatuta" azaldu da proiektuen "azken emaitzagaz". Gobernu taldeak "parke merkeak" egingo dituela diote, eta haiek ez dutela aurreikusitako diru atal guztia gastatuko.

Durango abesti feministen herri bozketa, martxan

E.H. DURANGO

Durango abesti feministen lehiaketa azken txanpan sartu da. Aurten, 33 sorkuntza lan aurkeztu dituzte lehiaketara, eta epaimahaiak 12 finalista aukeratu ditu horien guztien artean. Jaialdia datorren zapatuan egingo dute, martxoaren 15ean, eta lehiakideek Platerueneko oholtza gainean erakutsi beharko dituzte sorkuntzok, zuzenean jota. Hitzordu hori heldu bitartean, durangarrek zabalik dute abestiak bozkatzeko epea. Martxoaren 13ra arteko epea izango dute udalaren parte hartze atarira joan eta botoa emateko. Udalak bozketan parte hartzera deitu ditu herritarrak.



Kaletik Gaztetxera dinamikak Correosen eraikina okupatu zuen abenduaren 6an.

Lau gazte epaituko dituzte, gaztetxearen okupazioagaz lotuta

Epaituta apirilaren 3an egingo da. Gazteak "usurpazio delitua egotzita" epaituko dituztela dio 'Kaletik Gaztetxera'-k

Ekaitz Herrera DURANGO

Apirilaren 3an, datorren eguean, Durangoko lau gazte epaituko dituzte, Correosen eraikinaren okupazioagaz lotuta. Kaletik Gaztetxera dinamikako kideek zehaztu dutenez, "usurpazio delitua egotzita" epaituko dituzte gazteak. "Gure aburuz, udalek euren logikatik kanpora antolatzen diren talde orogaz hartzen dituzte era honetako jarrerak", adierazi dute dinamikako kideek. Era berean, azken asteotan poliziak "hiru gazte identifikatu" dituela azaldu dute, "epaituko dituztenei elkartasuna

adierazteko propaganda egitearren". Azkenik, egoera salatzen eta elkar antolatzen jarraituko dutela iragarri dute: "Gure helburu nagusia gazteak antolatzea eta gaztetxearen aldeko borroka indartzen jarraitzea da". Alde horretatik, gazteria deitu dute egitekoak dituzten mobilizazioetan parte hartzera.

Kaletik Gaztetxera dinamikak postetxe zaharra okupatu zuen abenduaren 6an. Handik egun batzuetara, udalak salaketa ipini zuen. Elkarretaratze, karga eta tentsio artean, gazteek irten egin behar izan zuten eraikinetik.

LABUR-LABUR

Garbiketa lanak Antso Estegizen

Durangoko Udalak garbiketa lan bereziak egin ditu Antso Estegiz kalean, Juan Itziarko etxadiaren parean. Hango eskailerak eta patio inguruak garbitu dituzte.

Alokairurako laguntzak prest gazteentzat

Durangoko Udalak 50.000 euroko diru atala prestatu du udalerriko gazteen etxebizitza alokairua diruz laguntzeko. Eskaerak martxoaren 31ra arte egin daitezke. Iaz, 19 herritarrek jaso zuten laguntza.

Atzerritarrentzako informazio saioak

Martxotik maiatzera bitartean, ziurtagiri digitalak, naziotasunagaitiko tramiteak, eta etxeko langileen araudia lantzeko jardunaldiak egingo dituzte Durangon, Elkartegian eta Zabaltzen-Sartun. Informazioa Immigrazio Sailean eskuratu daiteke.

Herri-autobusa Tabirako igerilekuetara

Durangoko Udala ordenantza bat prestatzen dabil udan herri-autobusa antolatzeko Tabirako igerilekuetara. Inkesta bat egin du orain dela gutxi, eta galdeketa parte hartu dutenen hamarretik bederatziri interesgarria iruditu zaie zerbitzua.

Trumoitteko kideek urteko batzarra egingo dute domekan




Trumoitte elkarteko kideak. TRUMOITTE

Ekaitz Herrera GARAI

Garaiko Trumoitte Kultur Elkarteko kideek 2024ko diru kontuak zarratu, eta 2025ari begirako plana eta aurrekontuak eztabaidatuko dituzte domeka honetan, martxoak 9. Era berean, bazkideen artean gertatu daitezkeen altak eta bajak kudeatuko dituzte, eta baita zuzendaritza batzordea berritzatu ere, hala badagokio. Elkarteko kideak kultur etxean batuko dira, 11:30ean. Amaieran luntxa egingo dutela jakinarazi dute.

PUBLIERREPORTAJEA



"Mondragon Unibertsitatea hautatuen, bigarren urtetik aurrera lanean hasteko aukera ematen duelako"

MARTIN UNZUETA DURANGO | 20 urte | Ikasketak: San Jose Jesuitak ikastetxean | Gradua: Industria Antolakuntzako Ingeniaritza | Zaletasunak: Futbola, Ezkurdi taldean ari naiz.



Zergatik aukeratu zenuen Industria Antolakuntzako Ingeniaritza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Gaztetatik argi izan dut ingeniaritza ikasi nahi nuela. Antolakuntzako aukeratu nuen, ekonomian eta nazioarteko merkataritzan sakontzen duelako. Mondragon Unibertsitatea hautatu nuen, bigarren urtetik aurrera lanean hasteko aukera ematen duelako.

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Lehen urtea izan da orain arte gogorrena, eskolatik unibertsitatera egokitze denbora behar izan nuelako. Erritmoa oso desberdina zen, eta ikasgaiak nahiko zailak iruditu zitzaizkidan. Bigarren eta hirugarren urteak errazagoak izan dira. Ikasteko

modu eraginkorragoa aurkitu dut, eta horrek asko lagundu dit. **Nola definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoko metodologia?**

Oso praktikoa da, asko ikasten baita. Lauhileko bakoitzean proiektu bat egiten dugu, eta bertan, lauhilekoan zehar landutako irakasgai guztiak integratzen dira. Horrek ez du bakarrik teoria lantzea ahalbidetzen, praktikara eramatea ere bai. Gainera, bigarren urtetik lanean hasteko aukera izateak ikuspegi desberdina eskaintzen digu.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Gehien gustatzen zaidana lan egiteko eta ikasteko eskaintzen duen konbinazioa da. Eredu dualari esker, teoria praktikan jar dezaket, eta horrek askoz hobeto ulertzen laguntzen dit.

Talde-proiektuak ere asko gustatzen zaizkit, talde-lana sustatzen dutelako eta benetako egoerei aurre egiteko prestatzen gaituztelako. Hobetzekotan, lan-karga batzuetan oso handia bihurtzen dela esango nuke, batez ere atzerketa garaian.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, eredu dualean. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzu?

Urtebete baino gehiago daramat lanean Draxton Europa & Asian (Fuchosa). Duela aste batzuk arte, Etengabeko Hobekuntza Sailean aritu naiz, baina orain Ingeniaritza departamentuan nago. Bertan, piezen errefusarekin, utillajeko arazoekin, elikadura-sistemako gorabeherekin eta harearekin lan egiten dut, besteak beste.

Zer-nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Alde batetik, lanean aritzeak beste ikuspegi bat ematen dit, eta horrek ikasgelako kontzeptuak azkarrago eta errazago ulertzen laguntzen dit. Bestetik, gaztetatik lan egiteak komunikazioan eta jendaurrean hitz egitean trebetasuna eman dit.

Etorkizunari buruz zein dira zure asmoak?

Etorkizunari begira, Draxton & Europa Asian jarraitzea espero dut, nire garapena jarraitzeko eta esperientzia gehiago lortzeko.



Argi Gorriak plataformaren mobilizazioa, martitzenean, Elorrioko plazan.



Eguaztenean Betsaide enpresaren aurrean egindako elkarretaratzea.

Elkarretaratzeak egin dituzte Elorrioko lan heriotza salatzen

Martitzen goizean Betsaide enpresan izandako lan istripuan 38 urteko Y. B. langilea hil zen; mobilizazio jendetsuak egin dituzte astean zehar Elorrioko

Aritz Maldonado ELORRIO
Lan istripu larria gertatu zen Elorrioko Betsaide enpresan, joan zen martitzenean. Ertzain-

tzaren iturrien arabera, maki-na batek langile bat harrapatu eta larri zauritu zen. Behargina, 38 urteko gizonezkoa, bertan

hil zen. Istripua 08:00 inguruan gertatu zen. LAB sindikatuak ohar bidez jakinarazi zuenez, hildakoa Grupo One azpikon-

tratarentzat lanean zebilen Y.B. langilea zen. Egun horretan bertan, Argi Gorriak plataformak elkarretaratzerara deitu zuen herriko plazan.

Bestalde, enpresako batzordeak deituta eguazten eguerdian egin zen elkarretaratzean jendetza batu zen Betsaide parean. Mobilizazioa 'Lan istripu gehiagorik ez! Nahiko da!' lelopean egin zuten, eta langileak, sindikatuetakordezkariak, herritarrek eta udal ordezkariak batu ziren.

Sindikatuaren salaketa
LAB sindikatuak ohar bidez salatu du azpikontrataturiko

LAB-EK DIO 2019AN ERE ISTRIPU LARRIA IZAN ZUELA AZPIKONTRATATUTAKO BESTE LANGILE BATEK

beste langile batek ere istripu larria izan zuela Betsaide enpresan, 2019an. "Ez dago makinaren segurtasunerako kontrol ofizialik, eta balizko azterketa tekniko bat pasatu beharko balute, gehienek ez lukete gaiturik", esan dute prentsa oharrean.

Mari Luz Estebanegaz solasaldia Atxondon, martxoaren 26an

'El manifiesto de las mujeres viejas' liburua izango du berbagai. Liburutegian eskuragarri dago liburua



Mari Luz Esteban. GOIENA

J.D. ATXONDO
Mari Luz Esteban Atxondoko liburutegian izango da martxoaren 26ko eguaztenean, berak idatzitako *El manifiesto de las mujeres viejas* liburuarri buruz berba egiteko. Poesia liburua da eta zahartzaroaren inguruko hausnarketak plazaratzen ditu bertan, emakumearen ikuspuntutik. Estebanek doktore titulua du gizarte-antropologian, eta aditua da antropologia feministan.

Liburua irakurri ez duenak badu solasaldira berau irakurritako aukera. Izan ere, hainbat ale dago liburutegian, eta han jaso daiteke.

Solasaldia 17:00etan izango da eta Mireia Delgadok gidatuko du. Atxondoko Berdintasun kontseilu herritarrek antolatutako ekimena da.

Aulki berriak eta hobekuntzak Izurtzako jubilatuen lokalean

Izurtzako Udalak aulki berriekin hornitu du jubilatuen lokala, eta ur berogailua ere aldatu du, besteak beste

J.D. IZURTZA
Izurtzako Udala hainbat hobekuntza egiten dabil Erdoitzako Ama jubilatuen elkartearen lokalean. Esaterako, aulki berriak erosi ditu harako. Horregaz batera, ur berogailua aldatuta, azpiegitura hobetu dute.

Konponketak hormetan
Udalak konponketa txikiak ere egingo ditu jubilatuen lokaleko horman, arrakalak daudelako. Udal ordezkariak esan dutenez, aurrekontuak eskatzen dabilza, gero lanak egiteko.



Jubilatuaren lokala.

GREMIOEN GIDA

Zurgintza

leike

Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leike.eus

Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf: 94 681 72 29

Zurgintza

ATERPE ARBOTZALAN

EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar
635 74 84 65

www.carpinteriaaterpe.com



Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberitzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garala A - BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Elektrizitatea



ELECTRICIDAD JON

622 684 284

electricidadjon@outlook.es



Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com



Iturgintza



**UNAI
GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es



"Ikerketa beharrezkoa da, eta jendeak jakin behar du gaixotasun hauek existitzen direla"

ZURIÑE LASAGABASTER MALDITA VALINA ELKARTEAREN SORTZAILEA

Zuriñe Lasagabaster berriztarraren Ibai semeak HIBCH gaixotasun arraroa du; Maldita Valina elkartearen bitartez, gaixotasun hau ezagutarazi gura dute

Aritz Maldonado BERRIZ

Zuriñe Lasagabaster berriztarrak Valladoliden (Espainia) bizi da, familiagaz batera, Santos Junquera bikotekideagaz eta Unax, Aimar eta Ibai semeekin. Orain hiru urte jaio zen Ibai, eta gero jakin dute HIBCH izenagaz ezagutzen den gaixotasuna duela umeak.

Zelan eragiten dio Ibaire gaixotasunak? Eta zuei?

Alde bi ditu, bata genetikoa eta bestea metabolikoa. Alde batetik, gaixotasun neurodegeneratiboa da, eta alde horretatik ez dugu informazio gehiegirik. Egunerokotasunean ikusten duguna dakigu; orain, adibidez, "lo" dagoe la dirudi. Bestetik, metabolikoki, Ibairen gorputzak ez du balina prozesatzen, eta horrek arazo handia suposatzen dio; asko zaindu behar du jatekoa, eta birusik ere ezin du hartu. Ez gara bizi burbuila batean, baina kontuz ibili behar dugu. Ordutegiei oso lotuta bizi gara, otorduak sei ordu izan behar dituelako; terapia



Junquera Lasagabaster familia, Ibai erdian dela.

askotara ere eraman behar dugu. Orain ondo dago; urtebete baino gehiago da ez dugula ingresatu behar izan. Beste seme bi ere baditugu, eta ahalik eta bizitzarik normalena egiten ahalegintzen gara, baina ez da erraza.

Diagnostikoa orain urte bi inguru eman ziguten, eta hasieran ez geneukan itxaropen handiegirik; adaptazio fase bat izan genuen, eta orain itxaropen handiagoa dugu. Niño Jesus ospitalera joaten gara, eta han zortzi urteko beste ume bat dago. Horrek itxaropena ematen digu, hasieran lau urteko bizi itxaropena ematen zioten-eta Ibaire. Orduan, Maldita Valina elkarte sortzea erabaki genuen. Besteak beste, desgaitasunei buruzko sentsibilizazio tailerrak ematen ditut eskoletan. Sare sozialei eskerrak, antzerako kasuak bizi dituzten familiekin hartu-emanetan jarri gara.

Zelan lagundu ahal zaio Maldita Valina elkarteari?

Webgunea martxan dugu, www.malditavalina.es, eta merchandisinga saltzen dugu bertan. Orain ez dugu kontu korronterik zabaldu, saltzen dugunagaz oraingoz nahikoa dugulako, eta, gainera, mezua zabaltzeko aukera ere badugu horrela. Jendeari

gustatu zaizkio diseinuak. Lagunei gertu egoteko eskatzen diet, oraingoz indartsu gauden arren hau iraupen lasterketa bat delako. 2025ean terapia geniko bat martxan ipintzekoak ei dira AEBetan, eta, ahal izanez gero, Ibai han sartzea gura genuke. Kasu horretan bai, dirua beharko genuke, baina, hala izanez gero, abisatuko genuke. Bestalde, ipuin bat ere kaleratzekoak gara, euskaraz eta gaztelaniaz.


Tailerrak ematen dituzula diozu. Berriz tailerrik egiteko aukerarik egongo litzateke?

Eskatuko balidate egingo nuke, beste leku batzuetan egiten dugu eta. Ikerketa beharrezkoa da, eta jendeak jakin behar du gaixotasun hauek existitzen direla, eta prebenitu behar direla. Orpoaren frogagaz detektatu daitezke, baina toki guztietan ez dute egiten.

"IKERKETA BEHARREZKOA DA ETA GAIXOTASUN HAUEK EXISTITZEN DIRELA ESAN BEHAR DA"

Angurreta eremua, ikuspegi berri batetik erakutsia

Drone batez grabaturiko irudiek Mañariko Angurreta eremuaren beste begirada bat eskaintzen dute. Bideoa sareetan zabaldu dute eta osagai gehiago ere baditu



Angurreta eremua drone batek harturiko irudian. ANGURRETA

J.D. MAÑARIA

Aurtengo egitaraua lantzen dabiltzan bitartean eta denboraldiari hasiera emateko elementu lez, Angurreta beste ikuspegi batetik erakusten duen bideoa kaleratu dute hango arduradunek. Bideoak zerutik begiratzen dio Angurretari, drone batez grabaturiko irudiei eskerrak. Bideoak Dayana Febres flamenko dantzariak Angurretan egindako argazki erreportaje bateko irudiak jasotzen ditu.

Bideoa ikusi



Zornotzako Udalak lursaila utziko dio Hezkuntza Sailari

Zornotzako Urritxe institutuan eraikin berria eraikiko dute, DBH eta Batxilergoko etapak lantzeko helburuagaz

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Udalak onespina eman dio udal lursail bat Jaur-laritzari lagatzeko proposamenari, bertan Urritxeko institutu berria eraikitzeko. Hain zuzen ere, Urritxe BHI eraikinaren ondoan dagoen 2454 lursaila utziko dio Hezkuntza Sailari. Akordio honen ondoren, utzitako lursaillean eraikin berria egingo dute, bertan DBH eta Batxilergoko ikasketak hartzeko; Lanbide Heziketako zikloak eskainiko dituzte bertan. Institutu berria eraiki ondoren, egun-

go eraikina eraitsi egingo dute. "Familia zornotzarrek irakaskuntza eredu berrietara egokituriko azpiegitura modernoak merezi dituzte, eta proiektu honez aurrera egiten jarraitzen dugu, gure gazteentzat kalitatezko hezkuntza lortzeko bidean", azaldu du Ainhoa Salterain alkateak osoko bilkuran. Jaur-laritzak ere aurrerapausotzat hartu du erabakia. "Ikastetxe berria eraikitzeak hobekuntza nabarmena ekarriko du Zornotzako eta inguruko hezkuntza eskaintzan", esan dute.



INAUTE RIETAKO

ARGAZKI LEHIAKETA

EMAN ZURE BOTOA
ANBOTO.ORG
WEBGUNEAN

MARTXOAREN 13a BAINO LEHEN

anboto
kide



Anbotokideen
txokoa

MARTXOKO ZOZKETAK



Basa: Basa take away jatetxeko
6 Baoko kutxatxo.



Pirritx eta Porrotx jaialdia, maiatzak 3.
2 sarrera bikoitz.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz.
Zornotza.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko
eman izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Egoiliarrentzako guneak marrazten dabilta Traña-Matienan.

Egoiliarren guneen proba pilotua maiatz amaieratik martxan

Udaletik jakinarazi dutenez, proba pilotua izango da.
San Prudentzio jaien ondoren ipiniko dute martxan

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO
Azken urteotan, autoa Traña-Matienan aparkatzea arazo bihurtu da herritarrentzat, eta Abadiño-ko Udalak soluzio bat eman gura dio horri. Hori horrela, datozen hileetan, San Prudentzio jaiak pasatu eta gero, egoiliarrentzako guneak egongo dira Traña-Matienan. Gune horietan, abadiñarrek baino ezingo dute aparkatu. Udal iturriek ANBOTOri azaldu diotenez, proba pilotu bat ipiniko dute martxan, "herritarrak babesteko harturiko neurri bat". Behin hile batzuk pasatuta eta herritarren iritzia jasota, hartu

beharreko neurriak zeintzuk diren ikusiko dute.

Mugikortasuna hobetzen

Bestalde, herriko mugikortasuna, garraioa eta irisgarritasuna hobetzeko asmoz, Bizkaiko Foru Aldundiko diputatuagaz eta Bizkaibuseko zuzendariagaz batu da udala, hainbat eskari egiteko. Eskari horietariko bat A3923 lineako (Elorrio-Bilbo) autobusak Muntzaratzen geldialdia egitea da. Gaur egun, linea hori Zelaian baino ez da gelditzen, eta zerbitzua Muntzaratzeko geralekura zabaltea eskatu du udalak.

Gizarte Ongizate eta Gazteria Saila indartzen, Abadiñon

Abadiño-ko Udalak azaldu duenez, "zaintzan aurrerapausoak ematea" da euren helburua

M.Z. ABADIÑO

Abadiño-ko Udalak iragarri du teknikari berri bat izango duela Gizarte Ongizateko eta Gazteria-ko zerbitzuak indartzeko. Udaletik jakinarazi dutenez, "zaintzan aurrerapausoak ematea" da euren helburua. Hori horrela, Gizarte Ongizate eta Gazteria sailak indartuko dituztela jakinarazi dute. Teknikari bat kontratatu dute horretarako. Teknikariak, besteak beste, honako eginkizun hauek izango ditu Gizarte Ongizate arloan: Abadiñon sortuko den zainketa ekosistema diseinatzea eta martxan ipintzea; 60 urtetik gorako zaintzarako premien azterketa egitea eta ekintza plana diseinatzea; eta herriko adinekoen kontseilua sortzea. Bestalde, Gazteria arloan, etxebizitza politika diseinatzearen prozesuan Gazteria Batzordearen ikuspegia txertatu-ko dutela eta gazte eta nerabeentzako proiektuetan lan egingo dutela jakinarazi dute.

Ehun bat lagunek parte hartu dute Mallabiko Krossmorean

Martxoaren 8aren bueltan antolatu dute lasterketa Mallabian. Asteburuan hainbat ekintza egongo da



Maren Dacosta eta Jare Landa, aurrean, lekukoa eskuan. VALENTIN MUGARZA

M.Z. MALLABIA

Eguraldi ederra lagun, aurreko asteburuan Krossmorearen laugarren edizioa egin zuten Mallabian. Ehun bat lagunek egin zuten korrika, eta herria morez jantzi zuten. Ekimenaren bultzatzaileak "pozarren" daude Krossmoreak izandako erantzunagaz.

Asteburu honetarako ekintza gehiago antolatu dute. Gaur, barikua, Martxoaren 8ari buruzko berbaldia eta eskulanean tailerra egongo dira, Kontzejuzarrean. Bihar, elkarretartzea eta Emakumezkoen Gomazko Paleta Txapelketa egongo dira. Eta domekan, 09:00etan hasita, Frontenis Txapelketa Mistoa jokatuko da. Egun berean, 12:30ean, Akelarre antzez-lana izango dute Kontzejuzarrean.

Umeentzat gela estalia ipiniko dute Zaldibarren

Zaldibarko herritarrek udalerrirako proiektu bi garatzea erabaki dute, boto bidez: eguraldiak laguntzen ez duenerako gela estali bat atontzea umeentzat, eta Olazarko ur txorrotak hobetzea. Proiektuak aurten gauzatzeko konpromisoa hartu du udalak

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko herritarrek proiektu bi garatzea erabaki dute, boto bidez, aurrekontu parte hartzaileetako bozketan: batetik, Otik 5 urtera bitarteko haurrentzat gela bat atontzea, eguraldiak laguntzen ez duen egunetan erabilgarri egon dadin. Proiektu horrek 4.500 euroko aurrekontua du. Bestetik, Olazarko ur txorrotak hobetzea. Horrek 15.000 euroko aurrekontua du. Bozkatze saioa joan zen martitzenean egin zuten, Liburutegi Zaharrean. Bertan, hamabi proiektu eraman zituzten bozketara, 20.000 eurorainoko mugagaz. Han baturiko herritarren artean, aipaturiko proiektu bi horiek izan zuten babesik handiena; gela estalia atontzeko proposamenak 26 boto jaso zituen, eta ur txorrotak hobetzekoak 20. Horrenbestez, herritarren eskeriak bere eginda, Zaldibarko Udalak proiektuok urte honetan garatzeko konpromisoa hartu du. Eneritz Azpitarte alkateak



Joan zen martitzenean egin zuten proposamenak bozkatzeko saioa. ZALDIBARKO UDALA

eskerrak eman dizkie aukeraketa prozesuan parte hartu duten herritarrei; bai proposamenak egiten parte hartu dutenei, eta baita bozketan parte hartu dutenei ere. Era berean, herritar guztiak animatu ditu etorriko diren parte-hartze saio berrietan

esku hartzera: "Herriarentzat saio parte hartzaileak onuragarriak dira aurrekontuak erabakitzeke. Proiektuak aberasten dituzte, eta herriko instalazioak zein zerbitzuak hobetu. Aurreantzean ere ildo horretatik jarraituko dugu", esan du.

Zaldibarko gaztetxearen 21. urteurrena zapatuan

Bazkaria, poteoa, Martxoaren 8ko elkarretaratzea eta kontzertuak izango dituzte

E.H. ZALDIBAR

Zaldibarko gaztetxeak bere XXI. urteurrena beteko du asteburu honetan, martxoak 8. Hori dela eta, bertako kideek ospakizuna antolatu dute. Dominika Talde Feministaren elkarretaratzeagaz hasiko dute eguna. Gero, 15:00etan, bazkaria eta bazkaloste girotua izango dituzte. Arratsaldean, herriko kaleetara irtengo dira poteoan (18:00). Azkenik, gauean, gaztetxera bueltatuko dira, musika kontzertuez gozatzera. Ameda eta Garratz taldeek egingo dituzte emanaldiak. Pipigaltzaluze musika jartzaileak ipiniko dio amaiera parrandari.



Gaztetxeko kideetariko batzuk.

Horma irudia eta azoka egingo dituzte Otxandion

Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan hainbat ekitaldi antolatu dute asteburura begira

Aitziber Basauri OTXANDIO

Bagaizan talde feministak, Mirugain mendi taldeak, Pasealeku elkarteak eta udalak hainbat ekitaldi antolatu dute Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan. Martxoaren 8an, horma irudi herrikoia egingo dute, 12:00etan, plazan; ondoren, elkarretaratzea egingo dute. Pasealeku jubilatuko elkarteak omenaldia egingo die Otxandioko emakume nagusiei, 13:30ean. Karta joko txapelketa egingo dute 17:00etan. Domekan emakume ekoizle eta sortzaileen azoka egingo dute plazan, 11:00etan. 17:30ean, *Quelccaya Qoi Ilur Puñuna* dokumentala eman gongo dute, kultur etxean.

Trantsizio ekologikoaz

Martxoaren 12an, trantsizio ekologikoaz gogoeta egin gura duen *Vidas irrenovables. Naturaleza o miseria* dokumentala proiektatu dute, 18:00etan, kultur etxean. Zuzendaria bertan egongo da.

Iurreta Lanbide Heziketa zentroa Euskelec-en lehiatuko da

Administrazio, Mekanizatu, Automozio, Arreta eta Telekomunikazio arloetako ikasleek parte hartzen dute

Aitziber Basauri IURRETA

Hainbat probatan lehiatuko den % 100 elektrikoa den ibilgailua diseinatu eta eraikitzea. Erronka horri aurre egiteko, Iurreta Lanbide Heziketa Institutuko 30 ikasle inguru buru-belarri dabilta lanean. Goi-mailako eta erdi-mailako ikasleak dira, Administrazioa, Mekanizazioa, Automozioa, Arreta eta Telekomunikazioa mintegietakoak.

Lehenengo fasean daude orain, autoaren diseinua eta muntaketa lantzen. Maiatzera bitartean, hainbat erronka bete beharko

dute, autoa pista ateratzeko prest izateko. Halaxe azaldu dute Administrazioiko ikasleak diren Paulek eta Elik. Gasteizen jokatuta da 2. fasea. Lehian parte hartuko duten ibilgailu guztiak batuko dira bertan, eta hainbat proba gainditu beharko dute.

MAIATZERA BITARTEAN, HAINBAT ERRONKA BETE BEHARKO DUTE AUTOA PREST IZATEKO

Proiektuan lan egitea da helburu nagusia, ikasleen berbetan. "Prozesua bera da garrantzitsua, emaitza baino gehiago. Iurretak beti izan du maila handia, eta horri eutsi gura diogu. Horixe dugu helburu", esan dute. Esperientzia polita dela gaineratu du Paulek: "Izan ere, proiektu hau ez da gure ikastetxera mugatzen. Euskal Herriko eta Espainiako zentroekin elkartuko gara Gasteizen".

Hala ere, ahal bada, irabazi egin gura lukete, Mekanizatu ikaslea den Jokinek argitu duenez. Iaz, Iurretak 3. postua lortu zuen. Euskelec-eko arduradunek proiektu metodologikoa izatea kontuan hartuko dute, baita kolaboratiboa izatea ere. Lehenengo parte hartu duen Txorierrri Politeknikoagaz aurkeztuko da Iurreta.



Euskelec txapelketan parte hartuko duten ikasleetariko batzuk, iazko ibilgailuagaz.



Durangoko Surrandiak Euskaraldiagaz bat.

Inauteri koloretsuak ospakizunez beterik Durangalde osoan

Eskualdeko kaleak mozorro irudimentsuekin bete dira inauterien bueltan. Joan zen zapatuan, Surrandiek jendetza batu zuten Durangon. Bestalde, Perubele pertsonaia ezagunak Zornotza bisitatu zuen joan zen barikuan, karnabalei hasiera emateko

J.G. DURANGALDEA
Durangaldeko kaleetan argi geratu da eskualdeko bizilagunei ez zaiela irudimenik falta. Han eta hemen mozorro originalak ikusi ditugu, alde guztietan, bakarka edo kuadrillan. Bikin-goak, pottokiak, eskiatzaileak...

Egun batzuetan transformaziorako aitzakia hartuta, ondo pentsaturiko kareta izan dira.

Surrandien kalejira
Mozorro berritzaileen aurrean, tradizioak ere geroago eta indar handiagoa du, alde biak erraz

uztatu daitezkeen seinale. Durangon, esate baterako, Surrandien kalejira, artza protagonista hartuta, harrera ezin hobea izan zuen joan zen zapatuan. Eta, Zornotzan, Perubele pertsonaia ere ez zuen hutsik egin joan zen barikuan.



Durangoko Surrandiak Euskaraldiagaz bat.



Durangoko Surrandiak Euskaraldiagaz bat.



Zornotzako Perubele.



Zornotzako Perubele.



Durangoko Euskaraldia inauterietan.



Durangoko Euskaraldia inauterietan.



Durangoko Euskaraldia inauterietan.



Lurretako inauteriak.



Lurretako inauteriak.

Lehiaketa, bozketa fasean

ANBOTOk Inauterietako argazki lehiaketa antolatu du aurten ere, eta hainbat herritarrek parte hartu dute bertan. Argazki lehiaketa amaierako fasean sartu da, bozketa fasean, eta, beraz, ANBOTOko irakurleek euren argazkirik gogokoenera botoa emateko aukera izango dute. Botorik gehien lortzen duen argazkiak euskal produktuekin osaturiko otzara bat irabaziko du.



TXINTXIRRI IKASTOLAKO KIDEAK.

DURANGALDEA ASTEON

Ostalaritzako langileentzat tailerra antolatu dute

DURANGO Durangaldeko Autodefentsa Sareak jakinarazi duenez, ostalaritzako langileak elkartuko dituen gune bat zabaldu gura dute, lanpostuetako arazo partekatuei elkarrengatik aterabideak bilatzeko asmoz. Horretarako, tailer bat antolatu dute martxoaren 17rako, eta bertan jorratuko dituzten puntuetariko batzuk hauek izango direla azaldu dute: Zer dio hitzarmenak jaiegunetan lan egiteari buruz? Oporrak inposatu al dizkizute?



'Señeak Bizkaia Rock Kanpusa' jaio da

ZORNOTZA Bizkaiko gazte musikarien talentua bultzatzeko helburuagaz jaio da Señeak Bizkaia Rock Kanpusa. Apirilaren 21etik 26ra, Lauaxeta ikastolan egongo da kanpusa. Hautatuak izan direnek klase pertsonalizatuak jasoko dituzte lehenengo mailako euskal artisten eskutik, eta haien musika estiloak praktikatzeko eta fusionatzeko aukera ere izango dute eurekin.



Pietateko Ama Birjina bere lekura bueltatuko dute

DURANGO Durangoko Alde Zaharrean, Zeharkalearen eta Komentukalearen arteko horman dagoen Pietateko Ama Birjinaren irudia datozen egunetan bueltatuko dute bere lekura. Zapatutik domekarako gauean, norbaitek bere lekutik kendu eta beste nonbait ipini zuen. Udaltzainek jaso egin zuten. "Irudiak ez zuen kalterik jasan", argitu dute udal iturriek.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:

- Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta, Miren Abasolo Txabarri eta Xabier Lazkano Baseta.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Irati Otadui Maiztegi.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILADEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



ITZALAK

Zein itzal dagokio beheko irudi bakoitzari?



ZENBATU

Irudi bakoitzetik zenbat aurkitu ditzakezu?



"Idaztea partekatu daitekeen zerbait dela erakutsi gura dugu"

SORKUNTZA Artista gazteek euren sorkuntzak lehiakortasunik barik aurkezteko eta plazaratzeko asmoagaz sortu dute 'Izanen' aldizkaria; oraintsu bigarren alea kaleratu dute, eta hirugarrenerako gaia ere plazaratu dute; 'Kresala' proposatu dute abiapuntu legez

Aritz Maldonado ELORRIO

Euskal Herriko ia dozena bat lagunek *Izanen* aldizkari digitala sortu dute, gazte sortzaileak saretu eta euren lanei ikusgarritasun handiagoa emateko asmoz. Talde horretako kideetarik bi dira Irati Gallastegi Molero elorriarra eta María Zarrabeitia Méndez abadiñarra.

Nondik dator 'Izanen' sortzeko ideia?

Irati Gallastegi Molero: Urruzuno literatur lehiaketan elkar ezagutu genuen; irabazleok Arantzara (Nafarroa) joan ginen egonaldi batera, eta han beti nabarmendu ziguten idazten jarraitzeko. Baina literaturaren munduan, lehiaketetatik kanpora, gazteontzat ez zegoela plazarik ondorioztatu genuen, ez zegoela lekuri gure lanak erakusteko. Orduan, lehiakortasunik bako eremu bat sortzea erabaki genuen. Komunitate bat ere egin gura genuen.

María Zarrabeitia Méndez:

Batez ere, gure artean saretea bilatzen genuen. Beste alde batetik, gure lanak erakutsi ahal



Irati Gallastegi Molero eta María Zarrabeitia Méndez.

izatea ere bilatzen genuen, ze, bestela, lehiaketak irabaztea da gure lanak erakusteko bide bakarra. Irabazten ez baduzu, inork ere ez du zure lanik irakurriko. Eta, jaso dugun lan kopurua ikusita, argi dago jende askok

ez duena tokirik bere lanak erakusteko.

Euskal Herriko hainbat lekutako jendea izanda, zelan konpontzen zarete?

M. Z. M.: Lantaldean bederatzi lagun gara, lehiaketan elkar

ezagutu dugunak. Interneten bitartez egiten dugu dena, eta gainerakoekin ere sare sozialen bitartez berba egiten dugu normalean.

Hainbat bider nabarmendu duzue lehiakortasunik eza.

I. G. M.: Irabazlerik bako leku bat gura dugu, denak maila berean egotea. Lehiaketarik irabazten ez duen jendearen lanak ere irakurri gura ditugu, izan ere, epaimahaiaren iritzia menpe dago, bestela. Beste kontu bat litzateke akats ortografikodun edo maila eskaseko lanak jasotzea, baina ez da horrelakorik gertatu.

M. Z. M.: Urruzuno lehiaketan, esate baterako, 270 lan bidaltzen dira; horietatik hamarrek irabazten dute, eta publikatu egiten dira, baina horrek ez du esan gura gainerako 260ak txarrik direnik, eta ez dago horiek non ikusi.

Idaztea bakarkako ariketa legez hartu izan da luzaroan.

M. Z. M.: Sortzaileak elkarren artean harremantzea litzateke gure beste helburuetariko bat. Eta oraindino gertatu ez den arren, sortzaileek elkarregaz sortzea asko gustatuko litzaziguke.

I. G. M.: Azken finean, gu ere horretarako elkartu gara. Normalean bakarrik idazten dugu, baina idaztea partekatu daitekeen zerbait izan daitekeela erakutsi gura dugu. Eta sortzen duzuna ez duzula zertan zuretzat gorde, erakutsi dezakezula, hala gura izanez gero behintzat.

Oraintsu bigarren alea kaleratu duzue. Zelako harrera izan du lehenengoak?

M. Z. M.: Lehenengo alean, guk geuk idatzi eta sinadurak asmatu beharko genituela pentsatu genuen, gure lanak argitaratzea baina izen asmatuekin, jende askok idatzi duela erakusteko, baina ez da horrela izan [barrez]. Gureak kanpoan utzi behar izan ditugu ia.

I. G. M.: Azkenerako, aldizkaria luzeegi geratuko zitzazigula uste genuen! Oso pozik gaude izandako harreragaz, jasotako lan guztiekin, hedabideetan izandako oihartzunagaz... Ezagutzen ez ditugun egileen lanak ere jaso ditugu, eta horrek erakusten du noraino heldu garen.

Sarean kaleratu duzue. Baduzue asmorik paperean ateratzeko?

I. G. M.: Gura genuke, baina urrutxo ikusten dugu.

M. Z. M.: Sareak bere alde onak eta txarrak ditu. Adibidez, edozein lekutara heldu gaitezke Internet bidez. Dena dela, artea bere forma guztietan publikatzea gustatuko litzaziguke, baita bideo edo audio formatuan ere, eta hori ezingo litzateke fisikoki egin.



Aldizkaria irakurri

Erakusketa kolektiboagaz ekin diote denboraldi berriari

MARGOLARITZA Durangaldeko Artisten Elkarteko kideen erakusketagaz ekin diote denboraldiari Ezkurdi Aretoan

A. M. DURANGO

Durangaldeko Artisten Elkarteak erakusketa kolektiboagaz emango dio hasiera Ezkurdi aretoko sasoi berriari. Guztira, hamazazpi ekitaldi programatu dituzte denboraldi berri honetarako. Lehenengoa AADko kideen eskutik egingo dute. Hamahiru gizonen eta bederatzi emakumeren 50 lan egongo dira bertan; besteak beste, Aratz Azpíriren, Enrique Larramendiren, Carmen Merayoren eta Itziar Etxeberriaren lanak. "Erakus-

keta honek gure inguruko aniztasun eta aberastasun sortzaileak islatzen du. Batez ere, olio pinturak egongo dira bertan, baina akrilikoa, lumatxa, akua-rela, pastela, argazkilaritza eta

DURANGOKO UDALAK IA 13.000 EUROKO INBERTSIOA EGIN DU EZKURDI ARETOA ERABERRITZEKO

teknika mistoak erabili dituzten lanak ere egongo dira ikusgai. Gainera, esperientzia artistiko desberdina eskainiko duen instalazio bat ere egongo da", azaldu dute AAD elkarteak. Datozen asteetan, Naiara Moralesen, Martín de Diego Sadabalen, Rosa M. Sanchezen eta Rai Bikandiren lanak ere egongo dira, besteak beste.

Durangoko Udalak, bestalde, areto hori eraberritu du. Besteak beste, LED argiztapen sistema berria instalatu dute, argiztapen larrialdien sistema ipini dute, eta argiztapen kontrol sistema hobetu dute.

Gainera, sabaiak margotu dituzte, eta bozgorailu berriak ipini dituzte. Hobekuntza lan hauetarako, Durangoko Udalak ia 13.000 euroko inbertsioa egin du.



AADko kideak eta udal ordezkariak.

"Zekerren hurrengo pauso logikoa da hau"

MUSIKA Zeker talde elorriarrak 'Gure bizimodua da' lau abestiko lana kaleratu du oraintsu; martxoaren 14an ekingo diote aurkezpen birari, etxean, Elorrioko gaztetxean, Nekktar berriztarrekin eta The Lio nafarrekin batera; sarrerak salgai daude oraindino

Aritz Maldonado ELORRIO

Kalifornia eguzkitsuko doinuaren eragina nabari zaio Zeker taldearen lan berriari. Aurrekoetan legez, punk rock doinuak oinarrian, ahots melodia itsas-kor eta erritmo biziekin jolasten jarraitzen dute *Gure bizimodua da* lan laburrean. "Zekerren garapena islatzen duen lana da hau: lehenengo lana poperoagoa zen, bigarreanean gauza arinagoak sartu genituen, eta hau bai bada Zeker", nabarmendu dute. Lan honetan, Fitoskinseko Txaberrek, Nekktarreko Alaiak, eta Iheskide taldeko Gaizkak eta Xaguk ere parte hartu dute. Martxoaren 14an Elorrioko gaztetxean aurkeztuko dute lana, The Lio eta Nekktar taldeekin batera. Sarrerak 7 euroan daude salgai, Portalekuan.

Gura duzuen Zeker horretatik hurbilago dago taldea?

Pablo Garcia: Baietz esango nuke, eta soinu aldetik ere bai,



Liher Larrañaga, Lander Amorrortu, Pablo Garcia eta Paul Urigoitia.

inoizko onena lortu dugu eta. **Liher Larrañaga:** Abestiek lehengo ildoari jarraitzen diote; elkarren artean desberdinak dira, baina gure soinua igartzen zaie, Zeker identifikatzen da entzuten dituzunean. Baina

oraindino igartzen dira gure eraginak. Aurreko EParen hurrengo pauso logikoa da. Eta esango nuke badugula modu propio bat melodiak lantzekoa. **Lan labor bat egitea aukeratu duzue berriro.**

L. L.: Abesti nahikotxo sortzen dugu, eta gero gustukoak ditugunak aukeratzeko ditugu. Behin hautaketa eginda, gogokoen ditugunak garatzen ditugu. Lan laborra izatearen erabakia, baina, erosotasunagaitik ere bada. Ez da berdina hamabi abesti nahastea, edo lau. Gainera, gaur egun musika kontsumitzeko moduak ere eragiten du. Lan luzeak ez dira entzuten, eta lau abestiko lan laburrak hasi eta amaitu entzuten dira.

P. G.: Hobe da maizago ateratzea materiala, lan luzeak denbora gehiagoan baino. Aukeraturiko abestiak gutxiago izanda, horiek borobiltzeko aukera gehiago ere badago. Motibagarriagoa ere badela esango nuke.

Inoizko soinurik onena duzuela diozue, baina, paradoxikoki, zuen kontura grabatu duzue lokalean.

P. G.: Liher arduratu da grabazioaz, eta Terrasako (Herrialde Katalanak) EM Estudi-ko Xavi Escrivanok nahastu du. Pozarren gaude emaitzagaz, eta pozgarria da ikustea ia dena gure kontura eginda lortu dugula hau.

L. L.: Garratz taldeagaz probatu genuen formula hau lehenengo, dirurik ez genuelako, baina gogo handia bai. Xavik batera jotzen du, eta gure estiloa oso gustuko duenez, oso ondo ulertzen gaitu eta oso erraza da beragaz lan egitea. Igartzen da gogoko duen zoezer nahastean dabilela. Ekonomikoki ere igartzen da horrela egitea.

Barikuan aurkezpen bira hasiko duzue, The Liogaz batera.

L. L.: The Liogaz Jimmy Jazz aretoan jo genuen, Iheskide elorriarrekin batera, iaz. Oso ondo konpondu ginen eurekin, eta, gerora, Iruñean ere elkarregaz jo genuen, San Ferminetan. Talde biok lana ia batera kaleratu behar genuela ikusita, elkarregaz bira txiki bat lotzea pentsatu genuen.

P. G.: Musika estilo aldetik ere osagarriak gara, eta hasi ere antzerako datetan hasi ginen talde lez. Oraingoan, bost hitzordu lotu ditugu elkarregaz. Lehenengoa barikuan izango da, Elorrioko gaztetxean. Nekktar talde berriztarrek ere joko du bertan. Zuzeneko aurkezpenak orain artean baino gehiago lantzen gabilta.

"LOKALEAN GRABATU DUGU, ETA EM ESTUDI-KO XAVI ESCRIVANOK NAHASTU DU"

"BOST HITZORDU LOTU DITUGU THE LIO TALDE NAFARRAGAZ BATERA, BION LANAK AURKEZTEKO"



GAI LIBREAN

ESTI ALBIZU GOIKOETXEA BIZENTA MOGEL BIBLIOTEKA

Bibliotekak beti emakumeen eskubideen alde

Bibliotekak gaur egun duten papera denontzat ezaguna da: ezinbesteko guneak dira gizartearen, ezagutza eskuragarri jartzen dutelako eta berdintasunaren balioak herritarren artean sustatzen dituztelako. Liburuak mailegatzeaz gain, hezkuntza, kultura, zientzia, artea eta informazioa bultzatzen dituzten eta komunitatea indartzen duten espazioak dira. Eta honen barruan, noski, emakumeen eskubideen defentsa dago: bibliotekak, beren eguneroko lanaren bitartez, emakumeen ahotsak eta esperientziak ikusarazten laguntzen dute, gizartearen berdintasun eta inklusio handiagoak lortzeko.

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, emakumeek gizarteari egindako ekarpenak ikusarazi nahi dira. Egun horretan bibliotekak emakume idazleen lanak, emakumeen eskubideen aldeko liburuak eta gai garrantzitsuen jorratzen dituzten jarduerak eskaintzen dituzte, emakumeen ahotsa eta ikuspegia zabaltzeko.

"DURANGOKO UDAL BIBLIOTEKAK EMAKUME BATEN IZENA DU; BIZENTA MOGEL"

Halaber, bibliotekak emakumeen parte-hartzea eta autoritatearen ahalduntzea sustatzen dituzte.

Durangoko udal bibliotekak emakume baten izena du; Bizenta Mogel. Bere izenarekin emakume baten

ekarpen eta garrantzia aitortu nahi da; Bizenta Mogel euskarazko liburu bat argitaratu zuen lehenengo emakumea izan zen, eta bere izeneko bibliotekan emakumeen eta euskararen aldeko apustu etengabea egiten da. Bizenta Mogel bibliotekan emakumeen ahotsak eta lanak eskuragarri jartzea egunerako zeregina da, eta horren adibideak ditugu bertako bilduma eta ekintzen programazioa. Izan ere, Bizenta Mogel bibliotekaren helburu nagusietako bat gizarte parekideago bat erakitzea da.

Bibliotekak komunitatearen bizitzan eragina duten espazioak dira, eta bertan herritarrek jakintza eta kultura partekatzen dituzte; Bizenta Mogel biblioteka ez da salbuespena. Bibliotekaren eguneroko lanak konfirmatzen du egunero dela martxoaren 8a, emakumeen eskubideak eta borroka egunero baloratzen dituztelako eta emakumeen ahotsak eta ikuspegia bultzatzen jarraitzen dutelako urteko egun guztietan.

"Bat-batean erantzukizun handiagoa hartzeak bertigo apur bat eman zidan"

SASKIBALOIA Miren Arin Ferre (Durango, 1998) Tabirako-Baque taldeko kapitainetariko bat da. 27 urte gaz, gazte-beteranoa da; gaztea adinez, baina beteranoa taldearen barruan. Iaz talde barruan erantzukizun handiagoa hartzea egokitu zitzaion

Joseba Derteano DURANGO

Aholkuak hartzetik aholkuak ematera pasatu zen goizetik gauera. Ardurak lepora bota eta taldeko lemaizinetariko bat bihurtu zen iaz, debutariz beteriko taldeak gehien behar zue-nean. Mailari eutsi zioten. Aurten lasaiago dabil, taldeak gora egin duelako. Jokoa erregular-tasuna bilatzea dute helburu.

Taldea boladaka dabil aurten. Lau garaipen segidan orain, eta, hurrengo, lau porrot bata bestearen atzetik. Zergaitik irregular-tasun hori?

Belaunaldi aldaketa handi batetik gatoz. Iaz jokalaria askok utzi zuten taldea eta gazte asko igo zen lehenengo taldera. Transizio batean sartu ginen. Ni neu bat-batean taldeko beteranoenetariko bihurtu nintzen. Taldea berriro eraikitzen hasi ginen: hartu-emanak landu, bat-batean jokatzeko modua ezagutu... Iazko urtea apur bat kaotikoa izan zen. Aurten partidu gehiago irabazten gabilta, baina, egia esanda, konstantzia falta dugu oraindik. Onenen kontra oso partidu onak jokatzen ditugu eta gure mailakoen edo behegarikoen kontra gehiago kostatzen zaigu. Baina, orokorrean, lana bere fruituak ematen dabil. Entrenatzaileak, pazientzia handiz, lan itzela egiten ari dira taldea aurrera eramateko.

Une honetan sailkapenaren erdian zaudete, zortzigarren. Zein da denboraldia amaitu arteko helburua? Partiduak irabazten joatea, horixe dugu helburu. Partidurik partidu joango gara. Lehenengo itzuliko garaipenak errepikatu egin gura ditugu bigarrean, eta galduriko taldeen kontra hobeto lehiatu.

Zelan daramazu 27 urte gaz taldeko jokalaririk beteranoetarikoa izatea? Hasieran apur bat txokantea izan zen eta kostatu egin zitzaiz-

dan. Bat gehiago izatetik bat-batean erantzukizun handiagoa hartzeak bertigo apur bat ematen zidan. Gainera, iaz Gorane Urain, lehenengo kapitaina, lesionatuta egon zen eta ardura hori hartu nuen. Ez nik bakarrik, baina nuen nintzen erreferente modukoa. Mailari eustea kolokan izan genuen. Presio handiagoa. Jokatzekoan, presio hori islatu egiten da sarritan: besteen zereginen begira egoten zara, zeurei begira egon beharrean. Hainbeste gauza duzu buruan... Baina, tira, azkenean denon artean egin genion aurre egoerari: jokalaria, entrenatzaileak...

Aurten bueltan da Gorane.

Bai, eta apur bat lasaiago nabil. Ez Gorane bakarrik. Ikasketak amaituta, Leire Intxausti bueltatu egin da taldera. Orain aste bi jokatu zuen lehenengoz. Horrek ere konfiantza ematen dit. Urte asko daramatzagu elkarrengaz, eta ondo hartzen dugu elkar. **Zure postua hegalekoa da. Jokari intentsitate handia ematen dion jokalaria zara eta aipatu dugu talde barruan duzun pisua. Zer gaitasun gehiago duzu kantxa barruan?** Jokalaria azkarra naiz eta jokari bizitasuna ematen ahalegintzen

"LANA BERE FRUITUAK EMATEN ARI DA. AZKENEAN TALDE BAT EZ DA EGUN BATETIK BESTERA ERAIKITZEN"

"IAZKO URTEA APUR BAT KAOTIKOA IZAN ZEN. AURTEN PARTIDU GEHIAGO IRABAZTEN GABILTA"

naiz. Mugimenduak oso arin egiten ditut. "Saskira jaurtiketa egiten duzunerako errebote bila zabilta", esaten dit lagun batek brometan. Eta, bai, jokalaria intentsioa naizela esango nuke. Intentsitatez defendatzea gustatzen zait.

Zein da Tabirako Baquegaz jokatu duzun partidurik bereziena?

Ez dakit, ba, partidu asko dire-lako. Bat aukeratzekotan, behar-bada, azkenengo Lauko Finaleko partiduren bat esango nuke, emozioantea izan zelako, baina galdu egin genuen azkenean... **Baina bizitako giroa hor geratuko da: Landako Kirolegia lepo, zaleak sutu...**

Ez pentsa, hainbeste jende ego-teak tentsioa eragiten dit. Kanpoko giroak ez eragiteko, zeure lanean ondo zentratuta egoten asmatu behar duzu. Horrek jende asko motibatu egiten du, baina ez da nire kasua. Sortzen den giroa oso polita den arren, gainpresio modukoa sentitzen dut nik.

Izan duzu idolo erreferenterik saskibaloian munduan?

Emakumeen liga nagusia ikusi izan dut eta Queralt Casas asko gustatzen zait. Eskolta posizioan jokatzen du, Valencia Basket klubean. Gauza batzuetan antzeko jokoa dugula ikusten dut. **Oraindik urte askorako dugu Miren saskibaloian?**

Ez dakit. Une honetan ez nuke jakingo erantzuten. Ea fisikoki eta mentalki zelan amaitzen dudan denboraldia. Belaunean ebakuntza bat egin behar didate. Aurretik beste ebakuntza bat ere badut. Gero, saskibaloiak konpromiso handia eskatzen du jokalaria moduan: entrenamenduak, asteburu partiduak... Denboraldirik denboraldi noa eta unea heltzen denean hartuko dut erabakia.



Miren Arin, Tabira Baque taldeko entrenamendu batean.

Entrenatzaile berriagaz eta zazpi final aurretik

SASKIBALOIA Asteon aldaketa bat izan da Teknei Zornotzaren saskibaloitaldearen aulkian. Iñigo Nuñez santurtziarrak Javier Garcia Panizo ordezkatu du. Entrenatzaile berriak helburu argi bat du liga amaitu bitartean: Zilarrezko LEB Mailari eustea

J.D. ZORNOTZA

Teknei Zornotzak entrenatzaile berriagaz aurre egingo die liga amaitu arteko zazpi partiduei. Izan ere, asteon aldaketa izan da aulkian: Iñigo Nuñez santurtziarrak Javier Garcia Panizo barakaldarra ordezkatu du. Nuñezek aurretik duen helburua ez da nolana hika: Zilarrezko LEB Mailan azkeneko tokian dagoen taldea salbaziora eramatea.

Panizok taldea uztea alde biek "adostasunez" harturiko erabakia dela esan dute klubeko ohar batean. Iñigo Nuñez ekartzearen arrazoiak honako hauek dira: "Teknikari legez talentua duela, lehiaketa oso ondo ezagutzen duela, eta gaitasuna duela epe laburrean errendimendua eskaintzeko". Nuñez Ciudad de Huelva taldean aritu da azken denboraldi bietan, otsailean taldea utzi zuen arte. Orduan, hirugarren tokian kokatuta zegoen. Talde hau ere Zilarrezko LEB Mailan dabil.



Cartier Ducati Diarra Teknei Zornotzako jokalaria joko antolatzen. LUIS ITURRIOZ

Mailari eustea helburu

Nuñez entrenatzaile berriak helburu bakar eta argi batez lan egingo du: mailari eustea. Une honetan taldea azkenengo tokian sailkatuta dago, sei ga-

raipen eta hamahiru porrotegaz. Estreinaldirako, aurkaririk okerrera egokitu zaio. Teknei Zornotzak Caceres liderraren kantuan jokatu du, zapatu arratsaldean.



Durangoko Kulturalak joan zen asteburuan ateratako hamaikakoa. LUIS ITURRIOZ

Kulturalaren bolada ona, entrenatzaile berriagaz

FUTBOLA Durangoko Kulturalak irabazi egin ditu azken partidua biak, eta hiru jardunaldi daramatza galdu barik

J.D. DURANGO

Durangoko Kulturalari apur bat argitu egin zaio panorama ligako azken txanpari begira. Ematen du entrenatzaile aldaketa ondo etorri zaiola. Aketza Gonzalezek orain hilabete Kulturalaren gidaritzan hartu zuenetik, taldeak gora egin du. Kulturalak hiru jardunaldi daramatza galdu barik eta azkenengo biak irabazi egin ditu, atea hutsean mantenduz gainera.

Hirugarren RFEF mailako liga amaitzeko hamar jardunaldiren faltan, sailkapenak ez du erlatzatzeko modurik ematen. Pos-

turen bat gora egin arren, beheko postuetan jarraitzen du, azken bosgarren. Hori bai, handitu egin du atzerago dituen taldeekiko aldea.

Joan zen asteburuan, Padura 0-2 mendean hartu zuen. Bigarren zatian etorri ziren golak; Mikel Pastrianekek zabaldu zuen markagailua, denboraldiko bere seigarren gola sartuta. Partiduaren hondarrea heldu zen bigarrena, Aitor Ituarteren jaurtiketa bati eskerrak.

Durangoko futbol klubak Deusto bosgarren sailkatuaren zelaia bisitatuko du zapatuan.



JOKALDIA

UNAI ZAMALLOA ZUBIAURRE SASKIBALOIA

Denboraldiaren erdi-erdian

Aurrekoren batean Ameriketako Estatu Batuetako NCAAk martxo zoroaz aritu ginen hemen. Saskibaloia gozaten dugunok betidanik jarraitu ditugu partidua horiek, baina azkenaldian ez hainbeste. Edozelan ere, unibertsitarioren moduan, txapelketa guztiak sartu dira denboraldiko unerik garrantzitsuenetan. Orain lantzen dira maiatzaren eta ekainaren bitartean jokatu diren final guztiak. Orain arte lana ondo egin ez duenak zail izango du jaitsierako postuak ekiditea, eta goian daudenek ezin dute hutsik egin aurrera jarraitu nahi badute. Trena galdu duenak datorren denboraldirako oinarriak lantzen hasi beharko du.

Horrela ba, Tabirakon neskek gogor ekin beharko diote goiko postuetan sartzeko. Horrek beste oinarri bat gehituko luke taldearen osaketa edo eraketan, aurreko urtean momentu gogorak bizi ostean. Ez dugu ahaztu behar jokalaria gazteez osatua dagoela, eta lehenengo mailaren moduko txapelketa batean ezinbestekoa

"TABIRAKON EZ DUGU AHAZTU BEHAR JOKALARI GAZTEZ OSATUA DAGOELA ETA EZINBESTEKOA DELA ESPERIENTZIA PUNTUA"

"ZORNOTZA AZKEN TOKIAN DAGO. EZ DA EMAITZA ONIK EGON ETA PROIEKTU BERRI HONEK HUTS EGIN DU"

da esperientzia puntu hori ere, argi geratu den moduan asteon ANBOTOk Miren Arini (taldeko kapitainari) egin dion elkarrizketan. Hurrengo zazpi jardunaldietan jokatzeko da goiko postuen borrokan amaitzeko aukerak irabaztea.

Mutirik, ostera, zuloan sartuta eta bertatik irteteko ezintasun argiarekin jarraitzen dute. Baina, egia esan, taldearen hobekuntza handia izan da azken jardunaldietan. Taldeak egiten duen lanak emaitza positibo gehiago ez izateak ez du justizia egiten. Garaipen gehiago izan beharko litzuke bere zorroan.

Zornotzan ere ilundu egin da kontua. Taldea azken postuan dago. Egia esan, ez da emaitza onik egon eta proiektu berri honek huts egin du. Javi Garciaoren ordezkari, Iñigo Nuñez entrenatzailea fitxatu du taldeak. Egoera zaila da, baina azken segundora arte borrokatu beharko da, datorren urtean Zilarrezko LEB mailan jarraitzeko aukerarik izateko.

KOMIKIA UNAI GAZTELUMENDI

ZER PRENTSA!



GUARDIAKO BOTIKAK

MARTXOAK 7, BARIKUA

09:00-09:00

De Diego, Intxaurrondo 22. - Durango

Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza

MARTXOAK 8, ZAPATUA

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

MARTXOAK 9, DOMEKA

09:00-09:00

Mujica, Andra Maria 9 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

MARTXOAK 10, ASTELEHENA

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

MARTXOAK 11, MARTITZENA

09:00-09:00

Navarro, Artekalea 6 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

MARTXOAK 12, EGUAZTENA

09:00-09:00

Irigoin, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

MARTXOAK 13, EGUENA

09:00-09:00

Sarria, Sasikoa 17 - Durango

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.

22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK

**Paul**

Martxoaren 8an, 10 urte. Zorionak, **Paul!** Bihar, martxoak 8, 10 urte egingo dituzu. Danon partez egun oso polita pasa dezazula opa dizugut! Muxu handi bat!

**Unax**

Martxoaren 4an, 5 urte. Zorionak, **Unax!** Martxoaren 4an 5 urte egin dituzu. Jarraitu hain polita ta jatorra izaten. Asko maite zaitugu. Musu handi bat zure familiaren partez.

**Eñaut eta Galder**

Zorionak, **Eñaut eta Galder!** Martxoaren 12an eta 29an urte bat eta 3 urte egingo dituzue. Asko maite zaituztegu, muxu asko!

**GOZATU GOZOTEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
☎ 661 40 14 00
f Gozatu Gozotegia
@ gozatugozotegia

Urte askotarako!

Zorionak Urko (1013.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.



Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak

Etorri zaitetz Anbotoren ordezkari zara edo deitu 946 232 523 telefonora.

EGURALDIAREN IRAGARPENA

Zapatua, 8**Domeka, 9**

GAER DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776

liburudenda

info@hitzliburudenda.com

#SALDUE NAK



Okm:

batzen gaituen
distantzia

EUREKAI ZIENTZIA MUSEOA

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

HITZ LIBURU-DENDA

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

- %15eko deskontua sarreretan.

IURRETA KOPISTEGIA

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

ETXEDREAMS

- %10eko deskontua dendako produktu guztietan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

- %5eko deskontua produktu guztietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

- %5eko deskontua liburuetan.
- %10eko deskontua papergintzan.

LA PERLA

- %15eko deskontua sasoiari jartzeko talaso zirkuituan.
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan.

NAIA GORROÑO HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

HONTZA MUSEOA

- %50eko deskontua sarreretan.

URALDE HORTZ KLINIKA

- %25eko deskontua garbiketa eta erradiografiatan.

EILEKE

Psikologia, neuropsikologia, logopedia eta psikomotritatea

- %15eko deskontua saio solteetan.

TABIRA BITXIDENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

PSIKOLOGIA AMOREBIETA

- %20ko deskontua zerbitzu guztietan.

KEINU OPTOMETRIA ZENTROA

- Armazoizko lenteetan eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

GAU-TU

- Dendako ehun guztietan %10eko deskontua, eta 500 €-tik gorako erosketetan %5eko deskontua atseden sistemetan.

SOLOZABAL ALTZARIAK

- Denda eta erakusketako produktuetan %10eko deskontua (etxeko aire-gozagarrietan izan ezik).

URKIOIL GASOLINDEGIA

- Izurtzako eta Otxandioko Urkiol gasolindegietan 3 zentimoko deskontua litroko.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

- %5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

OSASUN ETXEA

- Zatoz Osasun Etxera eta doako ebaluazio bat egingo dizugu zure gantz, eta muskulu-masaren portzentajearen berri emateko. (Novaline)

BERRIA!

URTXINTXA JOSTAILU DENDA

- %5eko deskontua erosketa guztietan.
- %10eko deskontua 100 €-tik gorako erosketetan.

ZELAI ALAI

- Udalekuetan %10eko deskontua.



Atera etekina txartelari!

Egin zaitez
Anbotokide:
946 816 558

Deitu eta
eman izena!





LAU-HORTZA

MAITE EUBA
AREITIOAURTENA

Bazara ala ez

Bai, ez, bai, ez... onartuko nauten? Taldekoa izango naiz? Nabarmen geratu naiz? Txiki-txikitatik ikasi behar izaten dugu taldekoa izateko hainbat arau bete behar izango ditugula; ego-kitu taldera. Lortuko dugu? Beti ez, egia esan.

Umetan taldeko jolasak, ekin-tza ausartak, hainbat zeregin izaten ditugu taldekide onargarria izateko. Beti ez dugu lortzen, jakina. Horretan ere zur ibiltzea eta estrategiak ikastea "hil ala biziko" izan liteke.

Nagusitu ahala esango nuke "selektiboago" egiten dela kontua: gorputzak zelako lekua hartzen duen ikaragarria da; nerabezaroan batez ere aldaketa "zoragarriak" zoratu, lotsatu, txikitu eta irentsi egiten ditu asko, eta, ondorioz, taldetik kanpo.

Ikasi ikasten dugu erlatibizatzen, gure nahiak eta gogoak beste edozeren gainetik jartzen ikasten dugunean, baina kontuz! Oraindik ere konturatu orduko hortxe agertuko da izan ala ez izan erabakiko duen onartze azterketa.

Sareetan barrena, Instagram, Tik-tok, X... antzekoetan dago joko. Facebook baino ez badaukazu, jai daukazu, dagoeneko ez zara-eta taldekoa.

Halere, azken joeren inguruen merkatu gero eta emankorragoa hauxe: kolagenoa, magnesioa, kreatina, ketoa, selenioa edo antzeko konplementoena. Baten bat hartu ezean, ERNE! Ez zara, ez zaude barruan eta.

AKUILUA

"Toad-ek Tabira taldearen espiritua irudikatzen du"

GONTZAL GAGO ETA IBAI RODRIGUEZ TABIRA IGERIKETA ETA SALBAMENDU TALDEA
Tabira taldeak maskota berria aurkeztu du, Toad. Gontzal Gago (Durango, 1998) eta Ibai Rodriguez (Durango, 2006) dira kide berriari bizia emango dioten igerilarietarik bi

Aitziber Basauri DURANGO

Durangoko Tabira Igeriketa eta Salbamendu taldeko maskotak joan zen asteburuan egin zuen jendaurreko aurkezpena, Madrilen (Espainia). Espainiako salbamendu txapelketa amaituta, igerilariak hondartzako probetan jarriko dute indarra orain. Durangaldeko 100 bat kide daude igeriketa taldean, eta datorren urtean 40 urte beteiko dira kluba sortu zela.

Zelan heldu da Toad klubera?

Gontzal Gago: Klubaren nortasuna sendotzeko helburuagaz sortu dugu maskota berria, igerilariak motibatuz. Taldearen batasuna indartu zezakeela pentsatu genuen, eta umorea eta giro ona sustatzeko modua izan zitekeela.

Ibai Rodriguez: Ideia polita iruditu zitzaigun txapelketetan alaitasuna emateko.

Zelako harrera izan du klubean?

I.R.: Ilusio itzelagaz hartu dute. Igerilarien artean lehenengoz aurkeztu genuenean, barre mordo egin genuen. Momentu polita izan zen.

Ibai, zuk sortu duzu, ezta?

I.R.: Bai, baina laguntzaileak izan ditut. Joan zen asteburu-ko txapelketaren bueltan sortu



**"KLUBAREN
NORTASUNA
SENDOTZEKO
HELBURUAGAZ SORTU
DUGU MASKOTA"**

zen, broma artean. Inauteriak zirela eta, ea maskota bat eramango genuen aipatu nuen. Gonzalo entrenatzaileak eta biok garatu genuen ideia. Toad — ingelesez apoa — da emaitza; Tabira taldeko armariaren

irudia izan dugu oinarri. **Zein zeregin izango du Toad-ek?**
G.G.: Klubaren ordezkari eta babesle izango da, parte hartzen dugun txapelketa eta ekitaldietan. Motibazio iturri izango da, gazteenentzat batez ere, eta taldearen balioak zabalduko ditu: laguntasuna, kiroltasuna... Tabira taldearen espiritua irudikatzen du: indarra, iraunkortasuna eta ausardia. Umorea eta giro ona ere bai.

I.R.: Talde giroa sortzeko balio du. Toad-egaz batera denok animatzen ditugu igerilariak, eta une ahaztezinak sortzen dira. **Igerilari nagusiek emango diozue bizia Toad-i, txandaka. Ibai, zuk zabaldu zenuen bidea Madrilen.**


I.R.: Bai, eta bizitako esperientzia polita izan zen.

G.G.: Behin bidea hasita, aurrera egitea baino ez dago. Egia esan, ilusio handiagaz hartu dugu taldea animatzeko ardura. **Klubak ez du inoiz maskotarik izan.**

I.R.: Ez. Klubaren armarrarian apoa agertzen da, Durango *sapuherrri* izan da beti, eta ideia bikaina iruditu zitzaigun maskota sortzeko. Taldeko beste kide bat gehiago izango da Toad.

G.G.: Ahalegindu izan gara klubaren irudia apur bat aldatzen. Aldaketa batzuk egin ditugu ekipamenduan, baina maskota sortzea ez zaigu inoiz ere bururatu, orain arte. Toad-ekiko irrika horri eusten ahaleginduko gara. **Zeintzuk erronka nagusi dituzue?**

G.G.: Taldeko igerilarien maila hobetzea da helburua, eta lehiaketetan ahalik eta emaitzarik onenak lortzea. Taldeko giro ona sendotzen jarraitzea eta igeriketa kultura sustatzea ere erronka garrantzitsuak dira. Horretan lagunduko digu Toad-ek.



**Bizimodu berri
bat Durangon.**

➤ **2. Fasea
eraikitzen
hasi gara.**

Zure hitzordua eskatu:
946 462 041
sukia.com

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa.